

TORIBIO ETXEBARRIA IBARBIA JAUNAREN NORTASUNA

Juan San Martín

Toribio Etxebarria Ibarbia Eibarren jaioa zen 1887ko apirilaren 27an eta sorterritik urruti erbesteraturik Caracas-en hila 1968ko apirilaren 18an. Autodidakta bazen ere jakinduriaraz ondo hornitua zen. Bere lehenengo ogibidea damaskinadugintzako grabadoretza izan zuen. Eta bere izate kezkatiaz goi mailako ikastaroak buka gabeak zituenenez, irakurketaren bidez mailaz-maila goraka igoaz joan zen, Eibarren bertan Udaletxeko idazkaritza eramartetik Alfa enpresa langileen elkartasunez eraikia zen kooperatibaren sortzaile eta zuzendari izatetik Espainiako Errepublika garaian Campsa-ren buru izateraino.

Eibarko Udalaren artxibategian berak aurkitu zuen 1754ko agirietan: “Ordenanza Municipalac Eusqueras, Elecinuetaracoz” eta Gregorio Mujika hiriko historiagintzara joan zenean eman zion horren berri. Nork osorik argitaratu zituen *Monografía histórica de la Villa de Eibar* (Irún, 1910) liburuan.

Garai, hartako eibartar sozialisten buruetariko bat zen, buru intelektuala noski, eta gaiak aztertzean, itsutasunik gabe, gauzak alde guztietatik begiraturaz analisi zehatz eta zintzoa egiten zekiena zen.

Nire *Escritores euskéricos* (1968) liburuan nioen bezala, batzutan “Arratetiko bat” izenordea erabiltzen zuen. Eta kolaborazioak egin

zituen aldizkarien artean honako hauek jartzen nituen, *El Socialista*, *Euskera*, *Euzko-gogoa*, *Egan*, *Olerti*, *Eibar* eta abar.

Beti apal bizi izan zen, gizartearen hobekuntzetara doan lana eskainiaz eta ondo bezain zuzen bideratuz. Bizitza guztian, esango nuke, bere bertso batean ongi zioen bezala jarraitu zuela:

*Sari bako gauzetan
aritzen danari,
ez interesa aittatu.
alperrik ba ari.*

Gainera, kultura gaietan kezkatia zenez, bere ekintzazko informei esker lortu zuen 1932an, bere eskariz Debako Santa Maria eliza kalostrearekin, Oinatiko San Migelgoa eta bertako Unibertsitatearekin batean monumentu deklaratzeari.

Izan ere, gizon berezia zen, ospetsua eta ideien gainetik guztientzat itzal handia irabazi zuen gizon eredugarria benetan. Gure gurasoentzat, gizon maitagarria.

Gainera, oroitzen naiz 1934ko urriaren 5ean, iraultza gisa jaiki nahi zuten sozialisten gazteriarekin ez zetorrela bat. Berak beti, ekintzak bakebidez eraman nahi izaten zituenez. Hala ere, gertatu zen gertatu behar ez zena eta bere burua agertu zuen erantzule gisa. Bere ustez, eibartar gazte sozialisten artean ideien bultzatzaile zelako gertakarien arduradun agertu nahi izan zuen. Eta Iruñeko San Kristobal presondegian hamasei hilabete t'erdia igaro zituen.

Han hasi zuen Millan Urkola eibartarraren galderei erantzunez: bizitzaren izakeraz eta gizarte giroak berez dakarrenaz nolako erantzupena eman behar dugunari buruz. Hor oinarritzen bai da *Metafisica a Urcola* deituko zuen liburuak. Gainera, liburuaren sarrerakoan bertan zioenez, norik pentsa zezakean iraultza gisako mugimendu haregatik epailetza bete zuten Dávila jenerala fiskal eta Solchaga jenerala Consejo de Guerra-ren buru izan ziren haiek handik laster Espainiako gerrate zibilaren buruetarikoak izango zirenik? Nor ziren haiek, azpilanean arituz besteen epaile egiteko?

Toribio, bai ideiaz eta bai ekintzaz, bere asmorik onenak eskainiz igaro zen mundu honetatik. Tamalez, bere zahartzarora erbesteturik igaro behar izan zuen, horrenbeste maitatzen zuen Eibarko txokotik urrutik, han bere bizitza bukatu arte.



Toribio Echevarría, 1887-1968

Haurtzarotik ezagutzen nuen, baina elkarren artean adinez genuen diferentziagatik, garai haietan ezin nuen izan berarekin harreman zuzenik.

Natura zalea oro bazen eta gerraondoan Eibar aldizkarian gure hiriko historiaz eta Eibarko Klub Deportiboko buletinean mendi ibileraz, zein euskaraz edo erdaraz idazten nituen artikuluak gogoko zituen nonbait eta bere adiskide mina zuen Santi Arizmendiarrietari galdetu zion Juan San Martin ze familiatakoa zen. Santik aditzera eman zion "Egurendarra" nintzela, hain ezaguna zuen Bernardinoren iloba. Orduan jarri zen nirekin idazten eta, argitaratzen genituen liburuak elkarri eskainiz, hilarterainoko harreman estua izan genuen.

1959. urtean Erresuma Batura joana zen, han bere bilobak ingeles hizkuntza praktikatu zitzaten eta udara igarotzera Hendaiara etorri zen. Egun batean, Edorta Alberdik telefonoz deitu ninduen, esanaz, Toribio Etxebarriarekin egon zela Hendaian eta ni pertsonalki ezagutzeko gogo handia azaldu ziola. Hurrengo larunbatean berriz joateko asmoa zuela eta nahiko banu bere autoz eramango ninduela. Baiezkoa eman nion eta joan ginen. Azpitarte eibartar erbesteratuaren etxean aurkitu genuen. Han zen berarekin Eibarko Armeria Eskolan buru orde izan zen Luis Ormaetxea injeniaria eta laurok elkarrekin joan ginen bazkaltzera.

Edorta Alberdi Eibarko Eusko Alderdiko buru zen gerra hasi zenean eta Luis Ormaetxea oro alderdi berekoa, Argentinara erbesteratua eta udara igarotzera Hendaiara etorria. Biok politikaz abertzaleak izan arren, gaztarotik Toribio Etxebarriaren lagun minak ziren eta aukerako otordu bikaina eduki nuen haien elkarrizketak entzuteaz. Azken batean, eibartar zaharren liberaltasuna nabari zen beraien joeretan.

Behin lortu zuen atzerritik Eibar bisitatzea, 1964. urtea zen. Ongi etorrizko bazkaria antolatu zioten eibartar adiskideek, Getariako San Prudentzian eta gomitatuatarik gazteena nintzen. Han autoz edonora eramateko eskaintza egin nion. Bere eskaria izan zen, egun batean Santimamiñe harpeko pinturak ikustera laguntzea. Eta hala bete genuen, bide batez Gernikako Batzar jauregia eta arbola bisitatzetik Santimamiñera eta handik Lekeitiora bertako basilika gotikoa ikustera. Horrela, bere gogoia betetzea lagundu nion. Baina, horrez gainera, itzultzean Deban gelditu ginen eta oroitu nintzen bertako elizaren arte aldetiko zehaztasun guztiak buruz gogoratzen zituela.

Baina noan Toribio Etxebarriaren idazlanen berri ematera. Lekarotzeko liburutegian uste gabean aurkitu nuen 1918. urteko azaroaren

25ean Toribiok Eibarko Casa del Pueblo hartan eman zuen hitzaldia, Eibarren bertan V. Fernández-en inprimategian argitaratua: *La liga de Naciones y el problema Vasco* zeritzana. Eta fotokopiatuak igorri nion Caracas-era, zeren gerratean galdu omen zuen berarekin zuen ale bakarra. Liburuxkaren aurkibidea atal hauetan oinarritzen zen:

Nota preliminar, I - El proyecto de Liga de las Naciones, II - Condiciones en la Liga de las Naciones, III - De las nacionalidades, IV - El eco del mundo dentro de nuestra casa, V - Necesidad de un criterio, VI - Antecedentes, VII - Las grandes nacionalidades, VIII - Concepto del despotismo, IX - La personalidad del país vasco, X - La reintegración foral, XI - El separatismo, XII - Los vínculos comunes, XIII - La Federación Ibérica, XI V - Los derechos individuales, Final.

Non agertzen zuen euskaldunon autonomia baten premia. III. atalean zioen: “Todos los pueblos han de ser dueños de sus propios destinos. El derecho de los pueblos débiles es tan respetable como el de los más fuertes”.

VI. garrenean ordea:

*Por lo que respecta a la tradición foral del país vasco, que en lo que más directamente nos interesa y constituye nuestro objeto inmediato, podrían recogerse innumerables manifestaciones hechas en la prensa socialista, entre las que destacan aquellas campañas de nuestro querido Tomás Meabe, para que adoptáramos el Guernikako-*arbola* como himno nuestro. Y las manifestaciones locales, todas ellas perfectamente unánimes en pronunciarse a favor del espíritu democrático, liberal y autonómico de nuestras viejas instituciones.*

IX.a, honela hasten du: “La personalidad del país vasco está determinada por caracteres diferenciales profundos, de una realidad innegable, como son su lengua, su origen, su tradición foral y sus costumbres”.

X.enean ordea, gaur oraindik zenbait sozialistak ere ukatzen duten gai bat ukitzen du. Hara zer zioen:

La reintegración foral no puede significar necesariamente la vigencia literal de aquella legislación, sino el restablecimiento o restitución a favor de este país de aquellas facultades legislativa, ejecutiva, judicial y administrativa que gozó hasta la abolición de los Fueros. Lo cual significa su plena soberanía política. Y que soberanamente después haría su legislación conforme pluguiera a su albedrío.

XIV. eanean jarraitzen du honela:

Una de las inteligencias del nacionalismo vasco, Ramón Belausteigoitia, en su folleto que acaba de publicar con el título de “Bases de un Gobierno Nacional Vasco” escrito con el lema de ni derechas ni izquierdas, frente único, dice: Todas las ideas y sistemas y creencias, serían, lo creemos, consentidas plenamente. (En Euzkadi libre se entiende). El respeto absoluto a las libertades individuales es una de las futuras bases de la Sociedad de Naciones.

Pero en el folleto se advierte que los conceptos vertidos en él son de la exclusiva responsabilidad del autor, y, en efecto, el órgano de la comunión nacionalista vasca, “Euskadi” se ha apresurado a salir al paso a las afirmaciones contenidas en el folleto con el “Syllabus” en la mano para hacer contra-afirmación de ortodoxia católica e intransigencia religiosa.

Este incidente, ha desbaratado justamente un mitin de afirmación vasca anunciado en Eibar, en el que habían de tomar parte personalidades de la izquierda, tan significadas como D. Francisco Gazcue y D. José Madinabeitia, a causa de que éste, por de pronto, se negó en absoluto a tomar parte en el acto mientras no procediera una declaración de que el partido bizkaitarra aprobaba las conclusiones de Belausteigoitia, en lo concerniente a los derechos individuales.

Y es lógico, porque los derechos del individuo son más sagrados y primordiales que los de la colectividad. Porque si el individuo no es libre, no vale nada que lo sea la colectividad a que pertenece.

Con esta misma lógica, el ayuntamiento de Eibar ha aprobado últimamente una proposición, relativa al problema vasco, que entre otras cosas dice: “que este cambio, (el de la reintegración foral) por su carácter fundamental, implica la revisión de la Constitución española, y ya que la reintegración de las facultades legislativa, ejecutiva, judicial y administra que gozó este país con sus Fueros, desde luego significa su soberanía política, es menester, consignar que entre aquellos servicios y funciones como Relaciones exteriores, Guerra, Marina, Aduanas, Deuda Pública, Moneda, Correos, Pesas y Medidas y Enseñanza general, que por pacto constitucional, en este caso, habrían de reservarse al Estado Español o Ibérico, tiene que figurar, antes de todo y sobre todo, la función superior de garantizar subsidiariamente los derechos individuales que hoy ya figuran en la actual Constitución y aquellos otros que como libertad de cultos, por ejemplo, son ya patrimonio de todo pueblo civilizado.

Eta bukatzeko, azken partean adierazten zigun honako hau:

Si llega la ocasión, y debemos desear que llegue, debemos dar nuestro voto por que se resuelva el problema vasco a base de una amplia autonomía, y aún a base de Estado, siempre que precedan aquellas garantías que nos interesan y hemos dejado señaladas. Y si consiguiéramos resolver en esta crisis el problema vasco y el de la República por la Federación Ibérica, y si al mismo tiempo se suprimiera el problema militar con nuestro ingreso en la Liga de las Naciones, nos encontraríamos de lleno, desbrozado el suelo, sobre el terreno de nuestra lucha de clases, —la de los trabajadores y los detentadores del patrimonio social, — donde han de darse las grandes batallas por la justicia social.

Esta ideas que aquí se dán no son nuevas precisamente, sin embargo, representan un mayor esfuerzo lógico que de erudición. Están espigadas, principalmente, en nuestro propio campo socialista, y por aquello de que es tan difícil inventar una nueva idea, generalmente las gentes nos debatimos sobre unos mismos conceptos que se visten de diversas maneras; esto a pesar de que en el mundo hay más cosas que las que están escritas en los libros de filosofía.

Oroi, argi eta garbi ikusten zuela Espainia, beste nazio asko bezala, feudalismopean bizi zenean, hemengo foruak demokratikoak zirela, neurri handi batean bere burujabetza agertuz. Horrela ikusten zuen Toribio Etxebarria gizon zuzenaren zintzotasunak.

Nire gurasoengandiko iritzi onak ezezik, era askotariko eibartarren aldetik ere ezagutzen nituen bere gizontasun eta zintzotasunaren aldeko iritziak. Izan ere, itzal handia zuen adineko eibartarren artean.

Jokaera hori ezagutu ondotik, tamalgarria deritzat Toribio Etxebarria bezalako gizona, 1920ko krisialdiaren eraginez, ikara eta zalapartaren artean, Alfa enpresaren kooperatiba industrialaz hainbeste arduratu beharrez eta horrez gainera intelektualki bere alderdiaren alde ekintza batzuetaz ere arduratu beharra, zeren horiegatik bere ideia aurreratuetaz idazteko betarik izan ez zuelako.

Bere lanerako ahalmen bereziak zituen, bere kultur jakintza, iritzi zuzen eta ongi ordenatua, geroago erbestean jubilatu ondorean eman zion intelektual mundu horretan jarraitzeari. Baita lan oparoa burutu ere.

Hizkuntzak herri bakoitzaren izaera naturalean ikusten zituenez, euskara ere arduratsu begiratzen zuen. Caracas-tik igorri zizkidan

Eibarko aditz laguntzailearen ikerlana eta hiztegia, *Flexiones verbales de Eibar*, nire aldetik sarrera labur batekin Euskaltzain dira eman nuena, eta Euskera, t. VIII-IX (1963-64), 53-130. orrialdeetan argitaratuko zena. Ondorean, hurrengo urtean, *Euskera* agerkari berean argitaratu emango zen hiztegi bilduma luze hura: *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Lan baliosa benetan eta horiek kontutan harturik izendatu zen 1965. urtean Euskaltzaindikok argazte.

Bi lanok, liburu batean elkarturik, Euskaltzaindik berrargitaratu zituen 1986an. Handik laster agortu zenez, Eibarko Udalak argitalpen berri bat egin zuen 1998an.


1967ko urriaren 23a, Andima Ibiñagabeitia euskaltzale borrokatuak, Martín Ugalderi lagunduz, bisitatu zuen Toribio Etxebarria Caracas-en eta, honen euskarari buruzko lanak ezagutzeaz, “Eibar’ko euskeraren alde” zeritzan artikulua bikain bat igorri zidan. Hain egokia iruditu zitzaidanez, nik Eibar aldizkarian argitaratu eman nuen (ikus: *Eibar* aldizkariaren 22. zenbakian, 1959. urteko martxokoa, bere 11garren orrialdean). Toribioatik non zioen, “Nork ez dau gizon au ezautzen? Eibar’ko gizon jakintsu ta zintzoa da. Jaungoikoak daki zenbat biar ein eban an errian. Bera izan zen gañera Alfa sortzen biarrrik geien ein ebana, berak organizatu eban koperatiba bezela. Ondo eza-guna da bai, Eibar’en jaun biargin eta argi au, eta bere izena oindiok pe itzal aundiz erabiltzen dabe Eibar’ko seme askok”. (Gero, artikulua hau, 1999ko irailean, *Eibar*, III. aldiko 31. zenbakian berriz argitaratua izan da).

Bisita horretan Martín Ugaldek egin zizkion galderetan eman zituen bere ideologiaren oinarri jakingarriak (Merezi du eta ikus eta irakur ditzakegu: “La pequeña historia de un fraude de guerra”, *Euskal Erbestearen Kultura*, Aktak II-1, liburukiaren 31-59 orrialdeetan. Editorial Saturrarán. Donostia, 2000). Horren ondotik, baita ere merezi du Xabier Apaolazak egin zuen ikerlana ezagutzea, “Toribio Echevarria: Humanismo y socialismo”, *Euskal Erbestearen Kultura*, Aktak II-2, 43-60 orrialdeetan. Editorial Saturrarán. Donostia, 2000).

1966an argitaratu zituen Méxicon hiru lan garrantzitsu. Lehena *Metafísica a Urcola*. Bizitzaz, munduaren izaeraz eta erlijiozko irizkiak eskainiz. 1941ean idatzia, lehenago 1935ean idatzi zuena osatuz, zeren lan hori Espainiako gerratean galdu bai zitzaion. Goi mailako pentsaeraz hain garrantzitsua zen liburu horri buruz Karlos

BILTARIXANAK

Toribio Echebarria



Santamaria zenak artikulua bikain bat eskaini zion, besteak beste, non zioen: “Echevarria se pone a mirar al mundo, la vida, la historia, y se asoma también al precipicio interior de nuestra “nada” humana, que nunca es lo suficiente “nada” para que nos deje descansar del todo. Su análisis es profundo, es claro y sobre todo hondamente vivo y humano”.

Bigarren liburua, *La experiencia socialista en España, vista desde mi pueblo*. Non biltzen zituen berak bizi izan zituen lekukoak, gizarte borroka eta historiaz, bere inguruan nabari izan zituenaz. Esanak ongi begiratzuz osaturik, gauza baliagarriak eskaintzeko.

Eta hirugarrena, *El Hijo del Hombre (Vida pública de Jesús de Nazaret, según los Evangelios)*. Itzulpen eta kontraeraz, Kristau izaeraren edukiaz arduraturik. Izan ere, Toribio Etxebarria bere bizi guztian *Bibliaren* irakurle zalea baitzen, kezkatua eta ateismoaren formulak guztiz bereganatu ezinez. Baina kristautasunaren eramateko zenbait era ere guztiz onar ezinak zituen. Bere zalantzak erreformista joerazko aburuz eramanaz ibili zen, bereziki, kritikak eginaz Espainiako jokaezaz oinarriturik, edo hobeto esan, espainolen katolizismoan. Baina, saio lan hau irakurtzean, gogoan izan II. Vaticano Kontsilioaren aurreko katoliko hierarkiaz ari zela.

Ondoko urtean, 1967an, argitaratu zuen Méxicon bertan *Tres ensayos (Del Trabajo, la Sabiduría y la Oración)*. Bizitzaren gogoezko saio kritiko oso ona, Espainiako gerratean Kataluniako anarkisten jokoerak eraginik idatzia da. Zeren, Toribio, Carlos Santamariak *Metafísica a Urcola* hartan ongi zioen bezala, bere barne-kezkaren eraginezko izaera honetan ikusten baitzuen: “Moralista, por partida triple, por vasco, por socialista y por hombre de alma —esto se ve— medularmente religiosa”.

Ezinezko zitzaionez inongo ordenarik gabeko giro hura onartzea eta bere gogoetak bultzarazirik burutu zituen liburu honen orrialdeak. T. Etxebarriaren pentsamena ulertzeko, behar beharrezkoa deritzat liburu hau lasai irakurtzea, behin eta berriz ahal bada, bertako edukiaz jabetzeko, zeren hau baita bere filosofiazko lanik aipagarriena.

1967ko urte berean, bere eskariz nik egin nion “Aurretiko agirixa” hitzaurrez Zarautzen argitaratu zen *Ibilarixanak (Arrate'tikuen izketango alegiñak)*. Bere euskal literaturazko lanik garrantzitsuena, noski. Eibarko euskalki motan idatzia.

Une batean, ibiltari gisa bere buruari idatziak, bertako bertso batean agertuz:

*Mundu urriñetatik ziar
eten bako bidietan,
egunaz, euzkixa lagun,
eta izarrak lagun gabaz
zetorren Ibiltarixa
bere buruagaz berbetan;
oñetakuak zar-zar,
ez dakitt nundik norako
bide luziak oiñduaz.*

Bost zatitan banaturikoa da. I eta II. parteak, bertsoz, munduaren sorketaz eta gizonaren agerpenetik historian zehar jaioterrira arte, Eibar eta Amerikako irudiez amaitzeko. III eta IV. parteak errealitate eta mitoz hornituriko emaitzaz, esaldien sorta aberats bat, tarteka gertakariak eta istorioak ezarriz, zenbait metrika eraz osatua. Eta V. parte *Bibliako* zenbait, zatiren itzulpenez eta Nafarroako Margaritaren ipuinez hornitua.

Ibiltarixanak liburu horren 391-452 orrialdeetan, hor daude hain maite zuen *Bibliako*: “Testamentu zarreko iru andrakume: Tamar, Ruth eta Bethsabe”, “Tobias” eta “Job`en liburua”. Geroztik igorri zidan “Daniel`en liburua” eta Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekarako eman nuen. Oraindik han jarraitzen du inon argitaratu gabe. Horiek ezaguturik, ondoko bertso honetan zioena ez zuen alperrik esana.

*Baña bat -Biblia Sacra-
nere bizi guztirakua;
milla urtian baneu be
eziñ agortutakua*

Horren ondorioz, *Ondakiñak* igorri zidan, *Ibiltarixanak* libururako idatziak baina paper artean galdurik aurkitu zituenak. Hauek *Egan* aldizkarian argitaratu nituen (Ikus: *Egan*, XXXVIII. zenbakian, 1978-1979, 33-133. orrialdeetan). Eta azken 123-133 orrialdeetan “Osagarri” izenburupean, frankismoaren zentsurak *Ibiltarixanak* liburuari kendu zizkionak ezarriz.

1968an México-n *Viaje por el país de los recuerdos* argitaratu zuen, bere gaztaroko oroitzapenez osatua. Eibarko berri asko eskaintzen ditu eta kontutan hartzeko liburu egokia iruditzen zait, bereziki Eibarko gizarte giroaren historiarako.

Erbesteratuok etxeratzen hasi ziren politika aldakuntzen ondorean eta, egun batean, Jesus Maria Leizaola lehendakari ohiak deitu ninduen, nirekin lasai mintzatzeko gogoaz azalduz. Bildu ginenean, Toribio Etxebarria zekarren buruan, kontatuz mila bederatziehungo hogeigarren hamarkadan nola elkar ezagutu ziren eta zein lagun minak egin ziren. Bere zuzenbide ikasketak bukatu eta laster, Eibar-ko Kruzeta saloian abertzaleei hitzaldia ematera joan zelarrik, mahai-buruan bere ondoan zuen don Poli Larrañaga apaizak esan omen zion: “Lehen lerroan eserita dagoen betaurrekodun hori Eibarko Sozialista Alderdiko buruetakoa ez ezik, intelektual mailan aurrenengoa da”. Eta Leizaolak kezkatu erantzunez azaldu omen zion: “Ez ote da etorriko liskarren bat sortzera?” Don Polik, ezezkoa eman zion, zeren beraiekin oso adiskide zela eta bi alderdion artean liskarrik sortzen bazen, berari esker egiten zituztela konponbideak. Ezagutzeko gogoaz sortu zitzaion eta hitzaldi bukaeran elkar aurkeztu ziren. Gero, bizitza guztian oso lagun izan omen ziren.

Horren ondorioz, behin Parisen erbesteraturik zen Errepublika Gobernuaren ordezkari bat joan omen zitzaion, esanaz, abertzaleen artean gizon zintzo asko zela eta alemanak sartuko ziren beldurrez gizon zintzo horietako batzuk beharrezko zituztela, Méxicon zuten Gobernu ordezkora dirua eramanez ahal izateko. Horretarako, Frantziako gobernuarekin hitz eginaz zutela eta bidaiarako behar zituzten pape-
rak lortu ezinik ez zutela. J.M. Leizaolaren erantzuna: berak ezagutzen zuela eibartar sozialista bat, familiarekin Bordelen erbesteraturik bizi zena, Toribio Etxebarria, azken urtetan Campsa-ren zuzendaritzaz arduratu zena, norengan jartzen zuen edozein abertzalerekin baino konfidantza handiago, bere gizontasun eta zintzotasuna hain egokiak zirenez.

Beraz, horrela lortu zuen Toribio Etxebarriak bere emazte eta bi alabekin Ameriketarako bidea. Edonolako premiarik baldin bazuen, eskuz eman zizkieten bi milioietatik ordaindu beharrezkoak ordaintzeko, Méxicon zen gobernuordeari kontu emanaz. Baina, Toribiok eman zituen guztia osorik igaro zuela, ezertxo kendu gabe, eta zalantzarik gabe izango zituela premia larriak; baina, hara hor gizonaren zuzentasuna.

Eibarko Udaletxeko Ego Ibarra elkarteak 1991ean Juan Pablo Fusi-ren hitzaurrez argitaratua du: *Epistolario 1941-1946* deritzan liburua, Indalecio Prieto eta Toribio Etxebarriak elkarren artean idatzirik gutunez osatua.

Eta, 1992. urtean Donostian, *La Cultura del Exilio Vasco* saileko 7. zenbakitzat argitaratua du, Luis Castells-en hitzaurrez, Toribio Etxebarriaren *Recordando la guerra. Diario de viaje de un refugiado español* deritzan liburua.

Idatz lan guztiok begiratu, bere ekintzetan argi dagoena da nolako gizona zen. Lanok irakurgarriak benetan, zeren gizontasun eredugarria erakusten baitute. Gaur egungo politikariek ere badute beragandik zer ikasirik.

Tamalgarría holako gizon bat erbesteraturik ikustea. Bere burua erbesteraturik urrutiko lur hotzetara kondenaturik agertu beharra. Arrazoiz zioen,

*ala geixago ez bertako
t'amaittu biar erbesteko.*

.....

*gizon apurtu bakarra
bizixan illunabarra...*